

2017ko azaroaren 28a

Sei euskal udalerrik “Biziaren aldeko hiriak” izeneko heriotza-zigorraren aurkako nazioarteko mobilizazioan parte hartuko dute ostegun honetan

- Azaroaren 30eko gauean, Bilboko Arriaga Antzokia, Donostia, Irun nahiz Sopuertako udaletxeak, Leioako Sakonetako Kiroldegia eta Santurtziko Dorretxe Jauregia argizatuko dituzte, eta aldi berean adierazpen bat irakurri, eta heriotza-zigorraren aurkako sinadurak bilduko dituzt
- “Biziaren aldeko hiriak” izeneko nazioarteko ekimena 2002az geroztik egiten da, Amnesty International kideztat duen Heriotza Zigorraren Aurkako Nazioarteko Koalizioak sustatuta
- 2016an gutxienez 1.032 pertsona exekutatu zituzten, 2015ean baino % 37 gutxiago, baina estatistikak ez ditu barne hartzen Txinan erregistratutako heriotza-zigorrak, zeinak izan ziren milaka, kalkuluen arabera

Bilbok, Donostiak, Irunek, Leioak, Santurtzik eta Sopuertak bat egingo dute azaroaren 30ean, osteguna, “Biziaren aldeko hiriak” nazioarteko ekimenarekin. Duela 15 urtetik, mobilizazio hori urtero egiten da, mundu osoan heriotza-zigorra desagerrarazteko nahia aldarrikatzeko. Hortaz, sei euskal udalerririk Heriotza Zigorraren Aurkako Nazioarteko Koalizioak sustatutako kanpaina babestuko dute. Amnesty International koalizio horretako kidea da, eta tokiko taldeetako aktibistak lanean ari dira, udal-korporazioek mobilizazio horretan parte har dezaten lortzeko.

Bilbon, Arriaga Antzoki enblematikoan argiztapen berezia jarriko dute 18:00etatik 22:00etara. Ondoko plazan, hiltzera zigortuta dauden bi pertsonaren aldeko sinadurak biltzeko mahai bat egongo da. Bestalde, Donostiako Udalak eta Irungo Udalak ere bat egingo dute nazioarteko kanpaina honekin, eta udaletxeen fatxadak argizatuko dituzte atxikimendua adierazteko.

Leioan, “Biziaren aldeko hiriak” mobilizazioaren aurretik, idazlanen lehiaketa bat egin dute udalerriko ikastetxeen artean, heriotza-zigorra gaitzat hartuta. *Partekatu* gazte-ekimenak ere parte hartu du heriotza-zigorraren aurkako ekimen global honen hedapenean, eta hori guztia islatuta geratuko da udal-aldizkarian argitaratuko den artikulua batean. Aurten, Sakonetako Kiroldegia hautatu dute kanpainako ekitaldi nagusirako: haren fatxada argizatuta egongo da 18:00etatik 20:00etara, eta, aldi berean, heriotza-zigorrari buruzko gogoetak proiektatuko dira bertan, bai intelektual ezagunen adierazpenak, baita udalerrian aski ezagunak diren dozena bat pertsonaren artean bideoan bildutako ekarpenak ere. Sinadurak biltzeko mahai bat jarriko da, eta, ekitaldia amaitzean, doako zine-forum saioa izango da Kultur Leioa Entzunaretoan: *Difret* (2014) film etiopiarra emango dute, zeinak heriotza-zigorraren gaia lantzen duen eta ikusleen sariak jaso dituen Berlineko nahiz Sundanceko jaialdietan.

Santurtzi eta Sopuerta udalerririk bizkaitarrek lehenengo aldiz bat egingo dute kanpainarekin. Kostaldeko udalerririk Sabino Arana kaleko Jauregi Dorretxe enblematikoa argizatuko dute 18:00etatik 21:00etara, eta

inguruan sinadura-bilketa egingo dute. Sopuertan, aldiz, udal-korporazioak udaletxea bera argiztatzea eta fatxadan pankarta bat ipintzea adostu du. Ondoko plazan sinadurak bilduko dituzte, eta adierazpena irakurriko dute.

“Biziaren aldeko hiriak” nazioarteko ekimena Sant’Egidio Komunitateak antolatzen du (Erroman sortua 1968an, bakearen aldeko otoitzerako nazioarteko topaketak sustatzen dituen laikoen elkarte publiko eta global gisa), Heriotzaren Aurkako Nazioarteko Kontzilioaren laguntzaz, zeinaren kide den Amnesty International, 60 bat erakunde, abokatu-elkargo, sindikatu eta mundu osoko aginte lokal eta erregionalekin batera. Mundu osoan barrena, 2.000tik gora hirik argiztatzen dituzte eraikin esanguratsuak herritarrak heriotza-zigorraren aurka daudela adierazteko, hala nola Montrealek, Berlinek, Genevak, Amsterdamek, Bruselak, Erromak, Lisboak, Rigak, Parisek, Nairobi eta Manilak.

Heriotza-zigorra munduan

2016an, Amnesty Internationalek 1.000 exekuzio baino gehiago erregistratu zituen mundu osoan. Kopuru hori 2015ekoa baino txikiagoa bada ere –2015ean gorakada historikoa erregistratu zuen erakundeak–, 2016an 3.000 pertsonatik gora zigortu zituzten hiltzera, aurreko urtean baino gehiago.

Txina izan zen, beste behin ere, exekuzio gehien egin zituen herrialdea, baina kopuruak estatu-sekretutzat jotzen dira oraindik. Asian eta Ozeanian erregistratutako heriotza-zigorraren kopurua nabarmen handitu zen, eta Txinari, Malaysiari eta Vietnami buruz argitaratutako informazio berriak agerian utzi zuen herrialde horietan modu kezagarrian hedatuta dagoela heriotza-zigorraren erabilera. Ekialde Ertainean eta Afrikako Iparraldean 2015ean baino % 28 exekuzio gutxiago erregistratu ziren, baina Iran eta Saudi Arabia munduko berrero nagusietako bi izan ziren, beste behin ere. Saharaz hegoaldeko Afrikan exekuzio gutxiago erregistratu ziren, baina erregistratutako heriotza-zigor kopurua % 145 handitu zen.

Zortzigarren urtez jarraian, Amerikako eskualdean AEB izan zen exekuzioak gauzatu zituen herrialde bakarra. Europan eta Erdialdeko Asian, Bielorrusiak berriz ekin zien exekuzioei, 17 hilabeteko etenaren ondotik. Eskualde osoan, Bielorrusia eta Kazakhstan izan ziren heriotza-zigorra erabili zuten bi herrialde bakarrak.

Ez dago heriotza-zigorra delituen aurkako disuasio-neurria dela adierazten duen inolako frogarik, baina argi dago neurri diskriminatzailea dela eta batzuetan neurritz kanpo erabiltzen dela ekonomikoki ahulak diren pertsonen aurka, gutxiengoen aurka eta disidentzia politikoa isilarazteko. Sant’Egidio Komunitatea eta Amnesty International heriotza-zigorraren kontra daude kasu guztietan, inolako salbuespenik gabe, edozein direla ere delituaren izaera eta zirkunstantzia, zigortua erruduna edo errugabea den gorabehera eta estatuak exekuzioa gauzatzeko erabilitako metodoa dena delakoa izanda.

/// AMAIERA

Dokumentuak eta prentsa oharrak
www.es.amnesty.org